

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: **2008/103/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko azaroaren 19koa, 2006/66/EE Zuzentaraua, pila eta metagailu eta pila- eta metagailu-hondakinei buruzkoa, aldatzen duena, pilak eta metagailuak merkaturatzeari dagokionez.**

---

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da:  
«*DIRECTIVA 2008/103/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 19 de noviembre de 2008, que modifica la Directiva 2006/66/CE, relativa a las pilas y acumuladores y a los residuos de pilas y acumuladores, por lo que respecta a la puesta en el mercado de pilas y acumuladores*» (*Diario Oficial de la Unión Europea, L 327 de 05/12/2008*)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

ZUZENTARAUAK

**2008/103/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA  
2008ko azaroaren 19koa**

**2006/66/EE Zuzentaraua, pila eta metagailu eta pila- eta metagailu-hondakinei buruzkoa, aldatzen duena, pilak eta metagailuak merkaturatzeari dagokionez**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, haren 95. artikuluko 1. paragrafoa,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Ikusita Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena <sup>(1)</sup>,

Eskualdeetako Komiteari aurrez kontsulta egin ondoren,

Tratatuaren 251. artikuluan araututako prozedurari jarraiki <sup>(2)</sup>,

Hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Komeni da 2006/66/EE Zuzentaruaren 6. artikuluko 2. paragrafoak arautzen duena argitzea <sup>(3)</sup>, horrek aukera emango baitu 2008ko irailaren 26a baino lehen Erkidegoko edozein tokitan legez merkaturatutako pilak eta metagailuak, baina zuzentaru honen bitartez ezarritako baldintzak betetzen ez dituztenak, Erkidegoko merkaturatu jarraitzeko aukera izan dezaten, data horren ondoren. Araua argituta, segurtasun juridikoa gailenduko da Erkidegoan merkaturatutako pilen inguruan, eta bermatu egingo da barne-merkatuak behar bezala funtzionatzea. Azalpen hori bat dator hondakinak minimizatzeko printzipioarekin, eta, gainera, administrazio-zamak arintzen lagunduko luke.

(2) Horrenbestez, 2006/66/EE Zuzentaruak aldatu egin behar da.

ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

*1. artikulua*

**2006/66/EE Zuzentaruaren aldaketa**

2006/66/EE Zuzentaruaren 6. artikuluan, 2. paragrafoa testu honek ordeztzen du:

«2. Estatu kideek behar adina neurri ezarriko dituzte bermatzeko zuzentaru honetan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten pilak eta metagailuak ez direla merkaturatuko 2008ko irailaren 26az geroztik.

Zuzentaru honetan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten pilak eta metagailuak data horren ondoren merkaturatuz gero, merkaturatik kendu egingo dira.».

*2. artikulua*

**Barne-zuzenbidean erantsi**

1. Zuzentaru honetan xedatutakoa betetze aldera, estatu kideek nahitaezkoak diren lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapenak jarriko dituzte indarrean, 2009. urteko urtarrilaren 5a baino lehen.

Estatu kideek xedapen horiek ezarri ondoren, zuzentaru honi buruzko erreferentzia egingo dute edo erreferentzia horrekin batera adieraziko dira argitalpen ofizialean. Estatu kideek adierazitako erreferentzia horren modalitateak ezarriko dituzte.

2. Zuzentaru honen bidez arautakoaren eremuan, estatu kideek barne-zuzenbidean ezarri dituzten xedapen nagusien testuak helaraziko dizkiote Batzordeari.

---

(1) 2008ko uztailaren 9an emandako Irizpena (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea).

(2) Europako Parlamentuaren 2008ko uztailaren 9ko Irizpena (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea) eta Kontseiluak 2008ko urriaren 20an hartutako Erabakia.

(3) L 266 EO, 2006.9.26koa, 1. or.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

*3. artikulua*

**Indarrean sartu**

Zuzentarau hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

*4. artikulua*

**Hartzaileak**

Estatu kideak dira zuzentarau honen hartzaileak.

Estrasburgon emana, 2008ko azaroaren 19an.

*Europako Parlamentuaren izenean Presidentea* H.-G. PÖTTERING

*Kontseiluaren izenean Presidentea* J.-P. JOUYET